

The image features a vibrant green background. A central white circle is surrounded by several overlapping, hand-drawn black lines that create a sense of movement and depth. These lines extend across the frame, some crossing the white circle and others forming larger, looser loops. The overall aesthetic is modern and graphic.

Plana

Emakumeen
aurkako indarkeriari
aurre egiteko erakundeek
emandako erantzuna: Plana

Emakumeen
aurkako indarkeriari
aurre egiteko erakundeek
emandako erantzuna:

Plana



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN
EMAKUME SAILA

© Arrasateko Udala
Plaza nagusia z/g
20500 Arrasate
Tel. 943 794139

Diseinua: di-da
Inprenta: Gráficas Lizarra
Lege gordailua: xxxxxxxxxx
2006ko iraila

Aurkibidea

0.	Sarrera	17
1.	Indarkeriaren definizioa	21
2.	Jarduera eremua	25
2.1.	Sexu erasoak	
2.2.	Indarkeria familian eta eremu afektiboan	
2.3.	Praktika sexistak kulturaren eta komunikazioaren eremuan	
3.	Emakumeen aurkako indarkeriari erakundeek emandako erantzunarek buruzko diagnostikoaren ondorioak	41
4.	Emakumeen aurkako indarkeriaren kontra tokiko jarduerarako programa, 2006-2008	49
4.1.	Kontuan hartzekoak	
4.2.	Programak	
4.2.1.	Tokiko Jarduera Programa	
4.2.1.	Tokiko Jarduera Programa hezkuntzaren eremuan, 2006-2010	
5.	Aurrekontua	93
6.	Protokoloa	99

Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako plataforma

Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna erreklamatzeko feminismoaren borroka politikoan etengabeko eskakizuna izan da. Emakumeek bizi izan duten, eta oraindik bizi duten portaera bortitz eta baztertzaileri amaiera emateko ahaleginak ekintza sozialekiko eta eztabaida politikoarekiko konpromisoa indartu baino ez du egin, eta egiaztatu egin dute emakume batek eskubidez dagokiona eskatzen duenean betidanik zigortu eta iraindu duen sistema kolokan jartzen ari dela.

Bidea latza izan da, oztopoz beteriko lasterketa ideologikoa. Talde feministek eta emakumeen elkarteek hainbat urtean egin duten lanak ez du lasterbiderik izan, borroka politiko eta sozialeko bide zaila izan da, eta berdintasunean oinarrituriko harremanak eskatzeko oinarri ideologikoak finkatu dituzte. Horrela, bizitza-filosofia berria sustatuz eta, aldatzeko eremu asko dituen gizarte matxista batean, emakumeen bizimodua seguruago bihurtzen duten irizpideak eta ideiak finkatuz.

Horren ilduan sortu zen Arrasaten Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako Plataforma Mistoa. Halako larritasuna duen gaiarekin konprometiturik eta sentsibilizaturik zegoen gizon talde batek emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko borrokan zuzenean eta jardunez parte hartu beharra antzeman zuen; eta halaxe uztartu ziren 2003. urtean, gizon talde txiki honen konpromisoa eta hainbat borroka-eremutatik eta pentsamoldetatik zetozen emakumeek gizarte-salaketan eta konpromiso politikoan urteetan egindako lana. 2004. urtean Plataforma eratu eta abian jarri zuten, eta urte hura indarkeriari buruzko eztabaidetan,

indarkeria kontzeptuaren ikuspuntu desberdinak bateratzen eta erakundeetan eta jendartearen alarma piztu duen halako gai korapilatsuan gizonak nola inplikatu aztertzen eman zuten. Taldeko lan horren ondorioz, Agiri bat kaleratu zuten emakumeen aurkako indarkeriaren kontra eta pertsonak desberdintasunak edukitzera zigortzen dituen eta gizonen eta emakumeen artean kalitateko harremanak eragozten dituen basakeria hori gure gizartetik desagerrarazteko zereginean gizonek ere parte hartzearen alde.

Plataformak bete-betean esku hartu du Emakumeen aurkako Indarkeriaren kontrako Udal-jarduerarako I.plana egiten; gogoeta eginez, iritziak trukatur, aldamenean eduki ditugun pertsonekin aberastuz. Prozesu horri esker oso akordio zabala, eta erakundeekin, gizarte eragile eta zerbitzuekin batera lan egiteko abiapuntua lortu ditugu; horrela, adostu ahal izan dugun egokiena den Plan hori berrikusi, hobetu, ebaluatu eta gauzatu ahal izateko.

Zeregin handia dago oraindik, pertsonen arteko berdintasunerako eta errespeturako bide luzearen hasiera baino ez da. Datozen belaunaldiek gure jakinduria eta gure lan konprometitu, arduratsu eta solidarioa baliatuko dute. Modu baikorrean pentsatzen hasteko abiapuntua da; emakumei bizitzan dagokien tokia emateko; eta leku hori ez da ospitaleetako larrialdiak ez tratatu txarrak jaso dituzten emakumei laguntzeko psikologo-bulegoak.

Horixe da gure ataza eta gure bidea.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN KONTRAKO PLATAFORMA

Hainbat urtean hitzaldiak ematen, sentsibilizazio kanpainak egiten, kartelak ipintzen, elkarretaratzeak egiten eman ondoren... Hainbat urtean emakumeen aurkako indarkeriaren gaia jendartera, kalera ateratzen ahalegindu ondoren... iritsi da egindakoari buruz gogoeta egiteko unea eta, batez ere, zer egin beharko genukeen aztertzea. Gure konpromisoarekin ados geunden arren, urrunago joan nahi genuen, ez genuen konformatu nahi, konpromiso handiagoa lortu nahi genuen, sektore gehiago erakarri. Ekimen gehiago egiteko gogoia genuen, eta badugu oraindik ere, ezinak harrapatzen utzi gabe, erronka berriei aurre egin, estrategia berriak taxutu eta konponbideak bilatu, txikikeriak utzi eta garrantzitsuenari aurre egiteko gogoia, emakumeen aurkako indarkeria bizitzako arlo guztietara hedatzen denez, denok esku hartu behar dugula ulertzeko eta azaltzeko gogoia; indarkeria matxistaren biktima emakume guztiak garelako esateko gogoia; gizon askok berdintasunaren aldeko apustua egiten dutela erakusteko gogoia eta, guk bezala, eurek ere badakitela gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren aldeko apustua egiten duen gizarteak baino ezin duela demokratiko izateko nahia eduki, eta orduantxe desagertuko direla emakumeen aurkako indarkeria-adierazpide guztiak.

Atzera begiratzen dut, eta nekez aurki dezaket lan honen hasiera zehatza. Baina gauza bat ondo gogoan dut: pertsonen aurpegiak, abentura honen benetako guraso diren pertsonak; gurekin elkar harturik lan egin duten gizon eta emakumeak, euren denboraren zatirik garrantzitsuena emakumeen aurkako indarkeriaren aurka borrokatzen ematea erabaki dutenak, gehiago egitea eskatu digutenak, behin eta berriro pentsarazi digutenak, izerdia eta irria eragin digutenak, irria ere bai, jakina, emakumeen aurkako indarkeria hain mingarria, hain odoltsua, hain deitoragarria izan arren, elkarturik jardutea lortu dugulako, elkarrengan konfiantza edukitzea lortu dugulako, bat egin eta taldea osatzea lortu dugulako. Politika publikoetan parte hartzea beharrezkoa ez ezik, erronka handia eta demokrazia-froga ere badela erakutsi duten emakumeak eta gizonak.

Mila esker Malen, Sagra, Juan, Domi, Rosa, Utzune, Alberto, Mikel, Joxe, Rufina, Cristina, Ana, Miriam, Axun... indarkeria matxistaren aurkako plataformako kideak guztiak. Eurei esker lortu dugu lan hau bikaina izatea; mila esker Agurtzari eta Estherri, berdintasunerako teknikari apartak biak; mila esker erakundeetako ordezkariak, sindikatuei eta taldeei egindako ekarpenengatik, mila esker ateak zabaldu dizkiguten emakume guztiei, **aurrera, beti aurrera jotzen duten emakume guztiei...** Eskerrik asko.

Maite Barreña

Arrasateko Udaleko berdintasunerako teknikaria

Sarrera

Gaurko egunean, hainbat kontzeptu erabiltzen ari dira, emakumeen aurka erabilitako indarkeria aipatzeko: gizonezkoen indarkeria, indarkeria sexista, etxeko indarkeria, genero indarkeria eta abar. Plan hau egiteko prozesuan, emakumeen aurkako indarkeria terminoa erabiltzea erabaki dugu, hainbat arrazoiengatik. Lehenik eta behin, termino argia delako eta berehala antzematen delako zeinen aurka erabiltzen den indarkeria hori. Bigarrenik, gaurko egunean termino hori erabiltzen delako nazioarteko zuzenbidearen esparruan, eta horrek duelako adostasun sozial eta politikoa handiena.

Halaber, saiatu gara genero indarkeria kontzeptua ez erabiltzen, administrazio publikoek eta hedabideek sarri-sarri erabiltzen duten arren. Izan ere, kontzeptu horrek ezkutatu egiten du zeinek erabiltzen duen indarkeria hori eta zeinen aurka erabiltzen duen. Gainera, gure ustez, esapide horrek interpretazio anbiguoak ditu. Batzuetan, emakumeen aurkako indarkeriaren sinonimo moduan erabiltzen dute; beste batzuetan, ostera, era generikoagoan erabiltzen dute, pertsona batek –gehienetan emakumeak– jasaten duen edozein indarkeria mota izendatzeko, baita genero harreman asimetrikoek eragindakoa ez bada ere. Eta, azkenik, genero indarkeria terminoa ez erabiltzeko, kontuan hartu dugu bikote harremanen barruko indarkeria bakarrik aipatzeko erabiltzen dela batzuetan.

Era berean, ez da gomendagarria indarkeria horri etxeko indarkeria edo familia barruko indarkeria deitzea; izan ere, definizio horretan sar daiteke familian erabiltzen den indarkeria guztia (adingabeen aurkakoa, pertsona nagusien aurkakoa, neba-arreben artekoa), kontuan izan barik zeinek egiten duen erasoa, zeini erasotzen dion, eta bigarren mailan uzten da lehen mailan egon beharrekoa: emakumeen diskriminazioa eta mendekotasuna, indarkeriaren sorburu eta kausa den aldetik¹.

¹ Sarrera hau Norma Vázquezek gainbegiratu eta zuzendu du. Norma V. feminista mexikarra da, Bilbon bizi da, psikologoa eta famili psikoterapeuta da, emakumearen aurkako indarkerian espezializatua.

Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko
erakundeek emandako erantzuna: **Plano**



1

Indarkeriaren definizioa

1. Indarkeriaren definizioa

Hemen indarkeriari buruz ematen dugun definizioa da NBE Nazio Batuen Erakundeak finkatu duena, emakumeei kontrako indarkeria ezabatzeari buruz 1993an egin zuen agirian, Emakumeari buruz Beijing-eko 1995eko IV.Mundu Konferentzian erabilitakoa, eta Eusko Jaurlaritzaren Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legean ere hartu den definizioa.

Horren 50. artikuluan honela dio: "Lege honen ondoreetako, sexuaren ziozko edozein ekintza bortitz joko da emakumeen aurkako indarkeriatzat, baldin eta ekintza horrek emakumeari kalte fisiko, sexual edo psikologikoa edo sufrimendua ekartzen badio edo ekar badiezaioke. Jokaera horien artean sartuko dira emakumea ekintza horiek egitearekin mehatxatzea, hertsapenak egitea edo askatasuna arbitrarioki kentzea, bizitza publikoan edo pribatuan. Horrek barne hartzen du, nahiz eta ez bakarrik:


A. familian edo etxean gertatzen den indarkeria. Hor sartzen dira, besteak beste, eraso fisikoa eta mentala, abusu emozionala eta psikologikoa, bortxaketa eta abusu sexualak, intzestua, senar-emazteen arteko indarkeria, noizean behingo bikotekide edo bikotekide egonkorren artekoa eta elkarrekin bizi diren pertsonen artekoa, ohorearen izenean egindako krimenak, emakumearen mutilazio genitala eta sexuala eta emakumearentzat kaltegarriak diren beste praktika tradizional batzuk, adibidez ezkontza behartuak.

B. erkidego orokorrean gertatzen den indarkeria, eta hor sartzen dira, besteak beste, bortxaketa, abusu sexualak, sexu jazarpena eta beldurraraztea lanean, erakundeetan edo beste edozein lekutan, emakumeen legez kanpoko trafikoa, sexu esplotazioaren eta esplotazio ekonomikoaren helburuez, eta sexu turismoa.

D. estatuak edo haren ofizialek egindako edo onartutako indarkeria.

E. gatazka armatuko egoeran diren emakumeen giza eskubideak bortxatzea, bereziki bahituak hartzea, nahitaez lekuz aldatzea, bortxaketa sistematikoa, sexu esklabotza, haurdunaldi behartuak eta sexu esplotazioaren eta esplotazio ekonomikoaren helburua duen trafikoa".

Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko
erakundeek emandako erantzuna: **Plana**



2

Jarduera eremua

2. Jarduera eremua

Indarkeria izendatzeko dauden moduek, bai eta indarkeriaren tipologiak ere, erakusten dute zein konplexua den gaia. Alde batetik, asko dira emakumeen aurkako indarkeria islatzen duten eremuak: familia, lana, ikastegiak, kalea, etab. Bestetik, gaitza da indarkeria modu batzuk eta besteak bereiztea, gehienetan batera etortzen direlako eta elkarri lotuta egoten direlako oso modu konplexuan.

Badakigu plan honek ezin dituela aztertu emakumeen aurkako indarkeria mota guztiak; hortaz, ezinbestekoa da planak hartzen duen eremua zehaztea. Aukeraketa hori egiteko orduan, kontuan hartu ditugu, azterketak planteatzen dituen mugak ez ezik, tratamendua, esku-hartzea eta geroko jarraipena eta ebaluazioa ere.

Azken txostenek erakutsi dutenez, erakundeetan eta autonomia eta udal esparruetan gehien zabaldutako indarkeria hau da: gizonen bikotekideen eta bikotekide izan direnen aurka egindakoa. Horrek agerian uzten du gizon horiek zer-nolako agintea hartzen duten harreman afektiboetan. Era berean, datuek agertzen dute indarkeria mota hori dela, gaurko egunean, erakunde publikoen helburu nagusia laguntza eta erantzuna emateko orduan; izan ere, bizikide duten edo izan duten gizonak emandako tratu txarrak jasan dituzten emakumeek eskatzen dute laguntza, gehien-gehienetan, eta, gutxiagotan, ezezagunek sexualki erasotako emakumeek.

Ikuspegi korapilatsu, mugatu eta askotariko horretan oinarrituta aipatu eta zehaztuko ditugu plan honek aztertuko dituen indarkeria motak:

- Sexu erasoak
- Indarkeria familian eta eremu afektiboan
- Praktika sexistak kulturaren eta komunikazioaren eremuan

2.1 Sexu erasoak

Honelako portaerak dira sexu eraso, besteak beste: exhibizionismoa, berba lizunak, zirriak, bortxaketa eta abar.

Sexu erasoetan, hiru mota bereiz ditzakegu:

— Sexu erasoak, zentzu zorrotzean. Indarkeria erabiliz edo beldurtuz egiten dira. Kasurik paradigmaticoena bortxaketa da, era guztietakoa.

— Sexu abusuak. Indarkeriarik barik edo beldurtu barik egiten dira, baina erasotzailea bere nagusitasunaz edo engainuaz baliatzen da. Halakoak dira, esaterako, baimenik eman ezin dezaketen pertsonari egindako abusuak, nahimena edo adimena mugatuta daukatelako (adingabeak, zentzumenak urriturik dauzkaten pertsonak, ezintasun psikiko jakin batzuk dituztenak eta abar.)

— Sexu jazarpena. Laneko, irakaskuntzako edo antzeko esparruetako harremanetan egindako sexu erasoak dira, berbaz egindakoak, berbazkoak ez diren erasoak edo eraso fisikoak. Horrelakoetan, emakumeari mehatxu egiten zaio, bere egoerari nolabaiteko kaltea egiteko mehatxua, hain zuzen, edo, bestela, emakumeari onuraren bat lortuko duela agintzen zaio, betiere presioari amore ematen badio.

EAE, 2005eko otsailean, sexu askatasunaren aurkako 298 delitu zenbatu ziren guztira: 169 sexu erasoak izan ziren; 96, sexu abusuak; eta 7, sexu jazarpenak.²

2.2 Indarkeria familian eta eremu afektiboan

Indarkeria mota hau senar-emazteen harreman afektiboetan gertatzen da, bikotekideen

² Definizioak eta datuak Eusko Jaurlaritzaren Emakunde erakundearen [Emakumeen aurkako indarkeria](#) agiritik atera ditugu

harremanetan edo bikotekide izandakoen harremanetan –elkarrekin bizi edo bizi barik. Teoria asko sortu dira, eremu horretan emakumeen aurkako indarkeria gertatzea azaldu nahian. Eredu psikiatrikoak, batez ere, erreparatzen die tratu txarrak ematen dituen pertsonaren ezaugarriei (gizonaren ezaugarriei), eta nabarmendu egiten du haren nortasunaren arazoren bat, gaixotasun psikikoren bat edo mendekotasunen bat (alkoholismoa, toxikomania eta abar), jokabide bortitzaren sorburu eta/edo eragile gisa. Eredu psikosozialak, berriz, bikotearen harremanen zailtasunak azpimarratzen ditu, batez ere rolen osagarritasuna, indarkeriaren zikloa azaltzeko; era berean, nabarmentzen du familian ikasten direla jokabide bortitzak, belaunalditik belaunaldira. Eta eredu soziokulturalak, azkenik, azpimarratzen du egiturak berak sortzen duela indarkeria, generoak bereizi eta kontrajartzen direlako sozializazioan (eta horren ondorioz bultzatzen edo/eta toleratzen direlako gizonen jokabide bortitzak eta emakumeen sumisio erantzunak); hala, gizarte egituraren osagai bat da gizonen indarkeria toleratzea, babes barik uzten dituelako tratu txarrak jasaten dituzten emakumeak, eta zigor barik tratu txarrak ematen dizkieten gizonak.

Azken eredu horrek berriro heldu dio analisi feministari: horren arabera, gizartearen egitura emakumeak desberdintasun egoeran izateak dakar indarkeria, eta ez hainbeste gizabanakoen ezaugarriek eta beste gizarte fenomeno batzuek, hala nola pobrezia, gizonen langabezia, ikasketa maila apalak eta abarrek.

Familia eremuan eta eremu afektiboan, zenbait indarkeria mota bereiz daitezke: fisikoa, psikologikoa, sexuala, soziala eta ekonomikoa; eta, hala ere, normalean batera agertzen dira indarkeria mota horietako bat baino gehiago:

— Tratu txar fisikoa, belarrondokoa ematetik hiltzerainokoa, eta tartean dira lesio larriak edo ez hain larriak, ospitaleratu zein ez. Tratu txar fisikoa agerikoagoa da, gehienetan marka fisikoak uzten dituelako, baina inoiz ez da izaten tratu txar fisikorik, tratu txar psikologikorik barik. Ia beti, bata eta bestea elkarrekin doaz.

— Tratu txar sexuala. Honen barruan sartzen da bikote barruko bortxaketa, bai eta emakumea estutzea edo behartzea ere nahi ez dituen sexu praktikak egitera, besteak beste.

— Tratu txar psikologikoa: irainetatik mehatxuetara. Eragin sakon eta asaldatzailea izan

ohi du; izan ere, tratu txar psikologikoaren helburua izaten da emakumeak bere buruarekin duen konfiantza ahultzea, emakumeak bere burua babesteko duen gaitasuna kentzea, errealitatearen pertzepzioa aldaraztea eta, oro har, oreka psikologikorako mekanismoak ezabatzea.

— Tratu txar soziala: tratu txarrak jasandako pertsona bakartzen dutenean gertatzen da, harreman esanguratsurik izaten uzten ez diotenean edo harreman sozialetan umiliatzen dutenean.

— Tratu txar ekonomikoa: emakumeei nahita hainbat gauza ukatzea da, hala nola informazioa eta beharrezko baliabideak; dirua eskura izaten ez uztea, janari pentsioa ez ordaintzea eta abar.

Arlo honetan gehien gertatzen diren tratu txarrak hauek dira: emazteari edo bikotekideari elkarrekin bizi izanik egindakoak. Dena dela, ezin ditugu ahaztu elkarrekin bizi barik ere emakumeei egiten dizkieten tratu txarrak: oraindik elkarrekin bizitzen jarri ez diren bikoteetako emakumeek sufritzen dituztenak (horietako bikote batzuk oso gazteak dira), edo harremana hautsi arren (aurretik elkarrekin bizi izan zein ez) lehengo bikotekideen jazarpena eta pertsekuzioa sufritzen dutenak.

Eremu horretan, arduratzekoa da zenbat emakume dagoen indarkeria egoera objektiboan. Hau da, nahiz eta ez konturatu, bikotekideen aldean menpeko egoeran daude emakume horiek; bikotekideek mespretxuz tratatzen dituzte, nola jokatu agintzen diete, eta askatasuna murriztu. Garrantzitsua da azpimarratzea emakume horietako askok eta askok ez dutela uste tratu txarrak ematen dietenik, nahiz eta bizi menpeko egoeran eta beren burua baloratu barik.

Tratu txarraren kontzientziaren eta egoera objektiboaren artean dagoen desoreka ulertzeko, kontuan hartu behar da luzaroan normalizaturik egon dela emakumeen kontrako indarkeria. Emakumeen egoera aldatzeak eta gizonekin berdintasun handiagoko harremanak izatearen alde borrokatzeak ekarri du isiltasuna haustea jokabide bortitzon inguruan. Orain dela urte batzuk, kontuok pribatutzat jotzen zituzten; beraz, ez ziren arlo pribatutik ateratzekoak, eta, gainera, senarrak emaztea zentzatzeko zuen erantzukizunari zegozkion, edo maitasunaren erakusgarritzat hartzen zituzten.

Tratu txarra etor daiteke aitarengandik, nebarengandik, semearengandik edo familiako beste gizon batzuegandik ere. Askotan, aitak indarkeria erabiltzen du seme-alaben aurka, bikotekidea behartzeko eta menpean hartzeko. Indarkeria mota horri dagokionez, azpimarratu nahi dugu Arrasateko Udaleko Gizarte Zerbitzuak oso kezkatuta daudela; izan ere, antzemanak dituzte, neurri txikian bada ere, semeek amei egindako indarkeria kasu batzuk.

Familia indarkeriaren eta indarkeria afektiboaren zikloak

Bikote harremanetan, indarkeria ez da bakan agertzen: modu erregularrean agertzen da, baina epe bereziak izaten ditu; hala, faseak zikloetan errepikatzen dira –nahiz eta ez iraun beti denbora bera–, eta larrituz joaten dira, emakumearen babes falta eta erasotzailearen zigor gabezia handitzen diren neurrian.

Hasiera fasea edo tentsioa sortzeko faseai

bikotean tentsioa apurka-apurka sortzen den aldia da, eta hor emakumeak gertaeren nolabaiteko kontrola du, oso txikia izan arren. Maiz gertatuko da gizonak kontrolak ezartzea, eta kontrol horiek maitasun keinuak direla esan (jantzi hau, egizu hau, gera zaitez nirekin, ez irten lagunekin); emakumeak ere maitasun erakusgarritzat har ditzake. Gizona babesle moduan agertuko da, eta ez du ardurarik konpartituko, esaterako, etxeko lanetan edo menpeko pertsonak zaintzeko lanetan. Fase horretan, eguneroko gorabeherengatik sortuko da tentsioa, hala nola arazo ekonomikoengatik eta umeen hezkuntzagatik, eta handitu egingo dira kezka eta bikotekideen arteko liskarrak. Gizona gero eta oldarkorragoa izango da berbaz, eta gero eta gehiago izango dira irainak eta mehatxuak.

Fase horren ezaugarri nagusia hau da: tratu txar psikologikoak behin eta berriro agertzen dira, eta emakumeak onartu egiten ditu, bikotekidearen haserrea baretu nahian. Batzuetan, emakumea esaneko agertzen da, ikasi duelako errudun eta harremanaren ezaugarrien erantzule bakar sentitzen; era berean, askotan baztertu egiten ditu bere ustez erasoaren sorburu izan diren jokaerak. Horrek, batzuetan, pentsarazten dio kontrola dezakeela egoera –oker pentsarazi ere–; izan ere, onartuta dauka bera dela erruduna, gizonak sinetsarazi diolako uste faltsu hori, eta, ondorioz, uste du bere jokaera aldatuz gero indarkeria amaitu

egingo dela. Denbora igaro ahala, liskarrak gero eta maizago izaten dira; emakumeak sentitzen du geroago eta gaitasun gutxiago duela oreka berriro ezartzeko, eta horrek tentsio eta neke handia sortzen dio.

Eztanda eta eraso fasea: fase honetan, gizonak ez du kontrolatzen bere haserrea, eta horrek tratu txar psikologikoak, fisikoak eta sexualak ekartzen ditu. Erasoak oso bortitzak izaten dira, eta ondorio fisikoak larriak izan daitezke. Faserik okerrenetan, hiltzeko arriskuan ere egoten da emakumea. Fase hau aurrekoa baino laburragoa da: minutuak eta orduak iraun dezake, bai eta astebete edo gehiago ere. Fase honetan, emakumeak, bere jokaera aldatuta ere, ez du inolaz ere kontrolatzen egoera. Emakumea konturatzen da alferrik dela gauzak arrazoitzen saiatzea eta aurre eginez gero are okerrago jarriko dela egoera.

Damuaren eta adiskidetzaren fasea

"eztei bidaia" ere deitzen dute. Tentsioa desagertu egingo da, eta, hasieran, gizonak barkatzeko eskatuko dio; gozo-gozo agertuko da, babesle eta amultsu, eta promes ere egingo dio ez dela berriro gertatuko, baina oso gutxitan onartuko du egindakoaren erruduna bera dela; horren orde, gizona saiatuko da emakumea konbentzitzen: ez du kontrolik galduko, emakumea hobeto portatzen bada. Bestalde, gizona seguru dago oraingo honetan emakumeak ikasi egin duela eta ez duela gehiago probokatuko; izan ere, barru-barruan, orokorrean erasotzaileek ez dute jotzen euren burua gertatuaren erruduntzat. Litekeena da emakumeak sinestea tratu txarrak ez direla berriro gertatuko eta elkarri dioten maitasunak aldaraziko duela. Askotan, emakumeak barkatu egingo dio eta isildu egingo da; gauzak konponduko direla pentsatzeak ahulago bihurtuko du emakumea.

Zikloa berriro hastearren fasea

aurreko fasean izandako aldaketa gorabehera, berriro erasoak izateko aukera handitu egiten da, geroago eta kontu hutsalagoengatik. Hala, zikloa hasten da berriro.³

3 [Etiología de la violencia y el maltrato doméstico contra las mujeres](#) lanari egindako egokitzapena. Nafarroako Unibertsitate Publikoa

2.3 Praktika sexistak kulturaren eta komunikazioaren eremuan


Indarkeria mota honi buruz dihardugunean, berbaz, keinuz, ukituz eta abarrez emakumeen bizi espazioan sartzen diren praktika guztiez dihardugu. Halaber, iruzkin sexista guztiak sartzen ditugu: esaterako, piropo matxistak, eta janzteko, ibiltzeko eta besterekin harremanak izateko moduei buruzko hitz-erdiak, ezezagunek esandakoak, bai kalean, bai aisialdi guneetan eta bai lantokietan eta ikastetxeetan ere.⁴

Horren bidez, kultur produktuak aipatzen ditugu, bai eta hedabideetan indarkeriari ematen zaion trataera ere, horrek lagundu egiten baitu jokabide estereotipatuak izaten, txarto interpretatutako mitoak sortzen eta, are larriagoa dena, gazteen artean emakumeen aurkako indarkeriaren tolerantzia zabaltzen, naturalizat jotzen eta ikusezin bihurtzen.

Horregatik, gure helburu behinena hau izango da: indarkeria mota hori antzematea eta aurrea hartzea ikastetxeetan, osasun etxeetan eta hedabideetan. Horretarako, beste hezkuntza modu bat bultzatuko dugu, harreman afektibo eta maitasun harremanak izan daitezkeen berdinzaleagoak eta pertsonalizuagoak; era berean, bultzatuko dugu arazoaren konponbideak indarkeriarik gabeak izan daitezkeen, eta, hartara, aurrea hartuko diegu luze gabe sor litezkeen portaera bortitzei.

4 Kanariar Uharteetako [Programa de prevención y erradicación de la violencia contra las mujeres](#) lanatik ateratako definizioa

Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko erakundeek emandako erantzuna: **Plano**



3

Emakumeen aurkako indarkeriari erakundeek emandako erantzunari buruzko diagnostikoaren ondorioak

3. Emakumeen aurkako indarkeriari erakundeek emandako erantzunari buruzko diagnostikoaren ondorioak

Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako Arrasateko Udalaren I. Planean garatu beharreko helburuak eta ekintzak definitu aurretik, ezinbestekoa iruditu zaigu indarkeriaren biktima diren emakumeentzat erakundeek abian dituzten zerbitzuen, prestazioen, baliabideen eta programen funtzionamendua aztertzea.

Oinarrizko helburuetako bat izan da emakume horiei arreta eskaintzen dieten erakundeek emandako erantzuna baloratzeko diagnostikoa egitea. Horretarako kontuan hartu dira administrazio-egituren egokitzapena eta egoera horiei aurre egiteko diseinaturiko baliabideak: arreta sozial eta psikologikoa, judiziala, poliziala (Udaltzaingoa eta Ertzaintza) eta osasun arreta (Eskualdeko ospitalea, lehen mailako arreta eta Buru Osasunerako Zentroa).

Lanaren lehenengo fasean, urgazpen-ibilbidean emakume hauek artatzen dituzten zerbitzuetako ordezkariak elkarrizketak egin zaizkie. Erdi-egiturazko elkarrizketetarako galdetegi bat prestatu da (erakundearen funtzioak eta jarduerak kontuan hartuta). Galdetegi horretan hainbat informazio jasotzen da: zerbitzuaren funtzionamendua, jarraibideak, deribazioa, kasuen koordinazioa eta segimendua, eskaeraren bilakaeraren azterketa, datuak erregistratzeko sistema, baliabideen balorazioa, lana egiteko eragozpenak eta mugak, eta, azkenik, zerbitzu bakoitzean antzeman diren bete gabeko premiak.

Diagnostiko hau barne erabilpenerako da eta Udalaren Erakundearteko Protokoloa taxutzeko oinarria izango da. **Protokolo hori tratu txarren edo/eta sexu erasoen biktima diren emakumeei arreta eskaintzeko erabiliko da beste bi agirirekin batera: alde batetik, Tokiko Jarduera Programako proposamen orokorrak, bi urterako, 2006-2008; bestetik, hezkuntza alorrean Tokiko Jarduera Programa, lau urterako, 2006-2010.**

Eta orain, diagnostikoaren ondorioz garrantzitsuenak laburtuko ditugu, udalerrian ematen diren prestazio, zerbitzu eta programen gabeziei buruz. Geroago, lanerako proposamenak agertuko ditugu; horiek, diagnostikoan proposatzen diren ondorioekiko lotura zuzena dute, eta Tokiko Jarduera Programa egiteko oinarri izango dira; laguntza hobetzeko helburua du programa horrek. Hortaz, hauek dira erakunde arteko laguntzan antzemandako arazoak:

— Datu nahikorik ez dago errealitatea hobeto ezagutzeko. Arazoak kodetzeko orduan, ez dago guztientzako irizpiderik. Eta, hortaz, ez dago informazioa jasotzeko sistema homogeneorik, ez eta bateraturik ere. Batez ere osasun arloan eta gizarte zerbitzuetan sumatzen da gabezia hori.

— Erakundeen arteko koordinazio eta jarraipen bideak ahulak dira. Erabiltzaile horiei eman beharreko laguntza hobetzeko, hainbat erakundek eta zerbitzuek esku hartu behar dute: polizia, erakunde judizialek eta osasun eta gizarte arlokoek. Koordinaziorik gabeko jarduera horrek defizita ekartzen du emandako laguntzaren kalitatean, bai eta askotan ahaleginak bikoiztea ere. Horregatik, ezinbestekoa da erakunde bakoitzaren ekintzen eta esperientzien bateratze lan bat, konpondu nahi diren arazoaren ikuspegi osotuagoa eskaintzeko.

— Ezberdintasunak daude emakumeen aurkako indarkeriaren ezaguerari eta aplikazioari buruz, laguntza ematen duten zerbitzuetako langileen artean. Euskal Autonomia Erkidegoko Etxeko Tratu Txarren eta Sexu Erasoen Biktima diren Emakumeentzako Laguntza Hobetzeko Erakunde Arteko Protokoloaren ezaguera ezberdina da, arazo horri erantzuten dioten plantilen egoerari eta hierarkizazioari dagokienez. Nahiz eta bermatu egiten den erakundeetako arduradunen ezaguera, ez da berdin gertatzen gainerako profesionalen artean.

— Prestakuntza espezializaturik ez dago indarkeriari eta haren kausei, zikloei, mitoei eta ondorioei buruz diziplina bakoitzean (juridikoa, medikoa, polizia eta soziala). Prestakuntza

hori beharrezkoa da emakume horiei laguntzeko. Ez dira behar beste ezagutzen tratu txarrak antzeman eta prebenitzeko beharrezko tresna eta adierazleak.

Herri, eskualde eta probintziako erakundeei eta indarkeriaren biktimei eurei informazioa eman beharra dago baliabideei, zerbitzuei eta programei buruz.


— Babes neurri nahikorik ez dago arrisku etengabeen bizi diren emakumeei segurtasuna bermatzeko. Une jakin batzuetan, hau da, banantze judizialeko prozesuan edo pertsona biak leku berean elkarrekin bizitzen jarraitzen duten bitartean, oinarrizkoa eta lehentasunezkoa da segurtasuna bermatzea emakume horiei eta haien ardurapean dauden pertsonen.

— Baliabide eta zerbitzu nahikorik ez dago berehala edo aldi batez etxea utzi nahi edo utzi beharra duten emakumeak hartzeko. Duela urte batzuk, Arrasaten bazen etxe bat tratu txarrak jasandako emakumeak hartzeko. Etxe hura ez zen eroso, eta ez zuen baldintza nahikorik babesteko, ez eta laguntza espezializatua eta profesionala emateko ere, eta horiek denak beharrezkoak dira horrelako egoerei aurre egiteko.

— Laguntza prebentiborako baliabide, zerbitzu eta programa sozialagorik ez dago, berba eginez eta hitzartuz gatazkak familian konpontzeko. Horri lotuta, topagune baten beharra dago, erabaki judizialak bete ahal izateko, gurasoen eta adingabeen arteko komunikazioei eta bisitei dagokienez, betiere segurtasun bermea ematen duen esparru batean. Eta, azkenik, beharrezkoa da emakume guztientzako lege aholkularitzako zerbitzu bat abian jartzea: informatzeko eta aholkuak emateko lehen kontsulta doakoa izango da.

— Baliabiderik eta sare formal eta informalik ez dago indarkeria horren biktima izanik beren ezaugarri fisiko, sozial eta kulturalengatik ahulagoak diren emakumeei laguntzeko. Desberdintasun funtzionala duten emakumeak eta emakume etorkinak.

Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko
erakundeek emandako erantzuna: Plana



4

Emakumeen aurkako indarkeriaren
kontra tokiko jarduerarako programa,
2006-2008

4. Emakumeen aurkako indarkeriaren kontra tokiko jarduerarako programa, 2006-2008

4.1 Kontuan hartzekoak

Emakumeen aurkako indarkeria da giza eskubideen urraketa larrienetakoa eta zabalduenetakoa gure gizartean. Era askotakoa da indarkeria hori; era askotakoak dira indarkeria sufritzen duten emakumeen bizitzetara ekartzen dizkien ondorioak; eta maila askotakoa da larritasuna, bereziki psikologikoa, baina baita beste arlo batzuetan ere, hala nola ekonomian, etxebizitzan, harreman sozialetan eta osasunean.

Erakundeek, jarduteko orduan, kontuan izan behar dituzte egoera sozial eta indibidual horiek guztiak, eta emakume horien behar guztietara egokitu behar ditu baliabideak eta zerbitzuak. Baliabide publikoak beharrak eta gabeziak konpontzeko erabili behar dira, bai egoera larrietan eta bai ez hain larrietan, eta ahaleginak egin behar dira indarkeria antzemako eta prebenitzeko lana egiteko; horretarako, informazioa eta aholkularitza sendotu behar dituzte, ezinbestekoak baitira biztanleen jarrerak eta portaerak aldatzeko.

Inplikaturik dauden erkaundeek eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako Arrasateko plataformaren arteko elkarlanaren emaitza gisa, Planaren taxuera eta hura abiarazteko ardatz izango diren ildoak zehaztu ditugu. Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako tokiko planak honakoa bete behar du:

— Erakundeen arteko (tokikoak nahiz eskualdekoak) koordinazioa hobetzeko eta bermatzeko beharrezko tresnak finkatzea. Hori dela eta, ezinbestekoa da zerbitzu bakoitzaren esku-hartzearen eta lanaren koordinazioaren berri edukitzea; arazoei berehala erantzun behar zaienean ez ezik, esperientziak bateratzeko, emandako erantzunak balioesteko eta arazo berriak eta litezkeen jarduerak planteatzeko.

— Informazio sistemen planifikazio, koordinazio eta diseinua hobetzea, estatistika fidagarriagoak egiteko. Informazio erregistro orri bat egin beharra dago, erakunde guztientzat bat, eta aurretik zehaztu behar dira emakume horiek ezagutu eta bereizteko aldagaiak.

— Inplikaturako zerbitzu guztientzat balio duen datu base bat egitea. Zerbitzu guztiek izango dute datu basean sartzeko aukera, behar duten informazioa lortzeko. Hala, saihestu egingo da erabiltzailearen bigarren biktimizazioa.

— Beharrezkoak diren babes eta segurtasun mekanismo berriak finkatzea. Segurtasuna bermatzeko, estrategia eta teknologia berriak aztertzea (GPS). Arriskua era sistematizatuan balioestea, agertzen diren kasu guztietan. Polizien jarduera-arauak malgutzea, zenbait kasutan konpainia lanak hobetzeko. Egoerak hala eskatzen duenean, emakumea berehala aurkitzeko sistemaz hornitzea.

— Sentsibilizazio eta informazio zereginak indartu behar dira, ezinbestekoa baita herritarren jarrerak eta portaerak moldatzeko. Emakumeen aurkako indarkeriaren gaiari buruzko eztabaida publikoak eta sozializazioa sustatzea, haren zergatiak, motak, faseak, ondorioak jakiteko eta arazo honi buruz finkatu diren mitoak desegiteko; izan ere, horiek errealitatea itxuraldatu eta ezkutatu dute. Informazio eta sentsibilizazio kanpaina orokorrak edo sektore jakin bati begirakoak egitea. Jarduerak indartzea hezkuntza eremuan, eta prozesu honetan inplikaturako irakasleen eta langileen prestakuntza bultzatzea.

— Tratu txarrak izan dituzten emakumeei arreta eman behar dieten profesionalen prestakuntza hobetzea, horrek emakumeen aurkako indarkeria bisibilizatzen laguntzen baitu. Gai horri dagokionez, etengabeko prestakuntzaren garrantzia, horrekin zerikusia duten planteamenduak garatuz doazelako. Prestakuntza-eskaintza orokorra izango da, eta langile guztiak hartuko ditu barne. Behar diren mekanismoak abiaraziko dira prestakuntza beharrezkotzat –beraz, derrigorrezkotzat– har dadin.

Tratu txarrak eta sexu erasoak antzemateko eta prebenitzeko zereginak indartzea. Tratu txarren biktima izan daitezkeen eta adierazten ez duten emakumeak identifikatzen ahalegintzeko adierazleak sortzea. Garrantzitsua da gizarte zerbitzuetan eta osasun zentroetan aplikatzea; izan ere, horietara sarritan joaten dira emakumeak oso sintomatologia nahasiarekin eta tratu txarrak ezkutatu nahian.

Gizarte zerbitzu berriak sor daitezen bultzatzea, emakumeen aurkako indarkeria era sistematikoan ez judizializatzeko. Gatazkak konpontzeko laguntza espezializatua eskaintzea, langile espezializatuekin (gatazketarako bitartekaritza). Prestazio berri horrek topagune zerbitzu bat ere eskainiko du, gurasoen eta adingabeen komunikazioei eta bisitei buruzko erabaki judizialak bete ahal izateko, segurtasun bermeak ematen dituen esparruan. Eta, bukatzeko, baliabide horrek berak lege aholkularitzako zerbitzu bat eskaintzea ere sustatuko du (ez bakarrik tratu txarrak jasan dituzten emakumeentzat), eta doakoa izango da lehen kontsulta.

Berehala nahiz aldi baterako harrera egin eta ostatu emateko baliabide berriak sortzea, erabiltzaileen premiei erantzuteko, hala egoera arinetan nola larrietan, babes behar dutenentzat nahiz beharrik ez dutenentzat, salaketa jarri edo babes neurria dutenentzat nahiz aurkeztu ez dutenentzat.

4.2 Programak

Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako tokiko jarduera programaren helburua da, alde batetik emakumeen aurkako indarkeria-egoerei erantzuna ematea eta arretatsu jokatzea, eta, bestetik, emakumeen aurkako portaera oro ezeztatzea xede duen gizarte kontzientziaketa sustatzea eta garatzea. Kontzientziatze eta prebentzio zeregin horretan hartzen du garrantzi berezia hezkuntzaren eremuak; funtsezkoa da neska-mutikoekin lan egitea, nerabeekin, familiekin... beharrezkoa da gatazkak konpontzeko bide ez-biolentoak, tolerantzian eta errespetuan oinarritutako bideak irakastea. Ikuspuntu horretatik, egokia iruditu zaigu plan hau bi bloketan banatzea:

- Tokiko Jarduera Programa
- Tokiko Jarduera Programa hezkuntzaren eremuan, 2006-2010

4.2.1 Udaleko jarduera programa

1. Helburua

Tramitatu, onartu eta zabaltzea Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Aurkako I. Udal Plana, tratu txarren eta/edo sexu erasoen biktimei laguntzeko Erakunde Arteko Udal Protokoloa eta Tokiko Jarduera Programa.

EKINTZAK	EGUTEGIA	EGIAZTATZEKO ITURRIAK
1 Erakundeen Arteko Udal Protokoloa aurkeztea eta eztabaidatzea, tratu txarren eta/edo sexu erasoen biktimak diren emakumeei laguntzekoa.	2005eko abendua-2006ko martxoa	Bilera akta Memoria
2 Tokiko Jarduera Programa aurkeztea eta eztabaidatzea.	2005eko abendua-2006ko martxoa	Bilera akta Memoria
3 Erakundeen Arteko Udal Protokoloa tramitatzea eta onartzea, tratu txar eta/edo sexu erasoen biktimak diren emakumeei laguntzekoa.	2006ko otsail-martxoa	Udalbatzarraren akta
4 Tokiko Jarduera Programa tramitatzea eta onartzea.	2006ko otsail-martxoa	Udalbatzarraren akta
5 Erakunde barruan Erakundeen Arteko Udal Protokoloa jakinaraztea, tratu txar eta/edo sexu erasoen biktimak diren emakumeei laguntzekoa.	2006ko apiril-ekaina	Bilera akta Memoria
6 Tokiko Jarduera Programaren berri zabaltzea, barnean eta kanpoan.	2006ko apiril-ekaina	Bilera akta Memoria Zabaltze kanpaina (liburuxka, kartelak eta abar)

2. Helburua

Koordinazio egiturak ezartzea, tratu txar eta sexu erasoen biktima diren emakumeei laguntzen dieten erakundeen artean, prozesuaren fase guztietan laguntza hobetze aldera: kasuak antzeman, esku hartu, bideratu eta jarraipena egitea.

EKINTZAK	EGUTEGIA	EGIAZTATZEKO ITURRIAK
1 Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako Erakundeen Arteko Batzorde bat sor dadin proposatzea. Tratu txar eta sexu erasoen biktima diren emakumeei laguntzen dieten erakundeen ordezkariak osatuko lukete.	2006ko apiril-maiatza	Bilerako akta eta akordioak
2 Indarkeria hobeto ezagutzea, jatorria, eragina, zikloak, ondorioak eta mitoak aztertuz.	2006-2008ko ikasturtea	Bilerako akta Memoria
3 Gogoeta eta eztabaida egiteko eta esperientziak trukatzeko guneak sortzea, emakume horiei laguntzen dieten erakundeen eta gai honetan interesa duten beste kolektibo batzuen artean.	2006-2008ko ikasturtea	Bilerako akta Memoria
4 Behar diren babes eta segurtasun bide berriak jartzea. Estrategia eta teknologia berrien garapena aztertzea.	2007-2008ko ikasturtea	Ikerketa proiektua Bilerako akta eta akordioak Memoria



EKINTZAK	EGUTEGIA	EGIAZTATZEKO ITURRIAK
<p>5 Ebaluatzea aldizka, batetik, Erakundeen Arteko Udal Protokoloa, tratu txar eta/edo sexu erasoen biktimak diren emakumeei laguntzekoa, eta, bestetik, halako kasuetan esku hartzen duten guztien artean ezarritako koordinazio akordioak.</p>	<p>2006ko abendua 2007ko abendua</p>	<p>Bilera akta Ebaluatze dokumentua Memoria</p>
<p>6 Ebaluatzea aldizka, batetik, tratu txarren biktimei laguntzeko zerbitzuetan, programetan eta baliabideetan lortutako emaitzak eta, bestetik, Tokiko Jarduera Programan egindako ekintzak.</p>	<p>2006ko abendua 2007ko abendua</p>	<p>Bilera akta Ebaluatze dokumentua Memoria</p>
<p>7 Zabaltzea, urtero, emakumeen aurkako indarkeriaren kontra Erakundeen Arteko Batzardeak egindako ebaluazioan jaso diren datuak eta egoera esanguratsuenak.</p>	<p>2007ko urtarrila 2008ko urtarrila</p>	<p>Bilera akta Memoria Zabaltze kanpaina (liburuxka, kartelak eta abar)</p>
<p>8 Tratu txar eta sexu erasoer buruzko ikerketa indartzea eta proposatzea.</p>	<p>2006-2008ko ikasturtea</p>	<p>Ikerketa proiektua Bilerako akta eta akordioak Memoria</p>

3. Helburua

Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko erregistro sistemak, datu bilketa, informazioa eta komunikazioa planifikatu, koordinatu eta diseinatzea, erakundeen artean.

	EKINTZAK	EGUTEGIA	EGIAZTATZEKO ITURRIAK
1	Kasuen informazioaren erregistro orria egitea	2006ko urtarrila	Dokumentua bera Akta
2	Erakunde guztientzat balio duen datu base bat egitea	2006-2007ko ikasturtea	Erregistro formatua
3	Informazio orri bat egitea, udalean, eskualdean eta probintzian tratu txar eta/edo sexu erasoen biktimentzat dauden baliabideei, programei eta zerbitzuei buruz	Udalbatzarrak zerbitzu berriak onartu zain	Dokumentua bera
4	Gida bat eguneratu eta lantzea, emakumeen eskubide politiko eta sozialei buruz eta indarkeriaz indarrean dagoen legeriari buruz informatzeko	Espainiako Estatuko Berdintasun Legea onartu zain	Gida bera
5	Hedabideekin jokabide egokia izateko dekalogoia sortzea (prentsa, irratia eta telebista), beren lanean berdintasunezko ikuspuntuan oinarritu daitezen, komunikazioaren esparru guztietan hizkera ez-sexista bultzatuz (hizkuntza, irudia, publizitatea eta abar)	2007-2008ko ikasturtea	Dekalogoia bera

4. Helburua

Informazio, kontzientziazio eta sentsibilizazio lanak sendotzea, bai erakundeetan eta bai gizartean, emakumeen aurkako indarkeriari buruz.

	EKINTZAK	EGUTEGIA	EGIAZTATZEKO ITURRIAK
1	Gizartean emakumeen aurkako indarkeriaren berri zabaltzea, jatorria, eragina, zikloak, ondorioak eta mitoak aztertuz.	2006-2008ko ikasturtea	Memoria Zabaltze kanpaina (liburuxka, kartelak eta abar)
2	Eztabaida publikoak egiten laguntzea eta emakumeen aurkako indarkeriaren gaia sozializatzea.	2006-2008ko ikasturtea	Memoria Zabaltze kanpaina (liburuxka, kartelak eta abar)
3	Emakumeak indarkeriari buruz kontzientziatu eta sentsibilizatzea: horren jatorria, moduak, zikloak, mitoak, ondorioak eta abar; eta jarrerak irmoak eta ukatze jarrerak hartzeko beharra.	2006-2008ko ikasturtea	Bilera akta Memoria Zabaltze kanpaina (liburuxka, kartelak eta abar)
4	Gizonak kontzientziatu eta sentsibilizatzea arazo sozial horren larritasunari buruz, eta ukatze jarrerak eta salaketa aktiboa sustatzea.	2006ko martxoa. 2006-2008ko ikasturtea.	Bilera akta Memoria Zabaltze kanpaina (liburuxka, kartelak eta abar)
5	Gazteak kontzientziatu eta sentsibilizatzea arazo honen larritasunari buruz; harreman pertsonaletan indarkeria mota guztiak antzemateko tresnak ematea, eta ukatze eta salaketa jarrerak sustatzea.	2006-2008ko ikasturtea	Memoria Zabaltze kanpaina (liburuxka, kartelak eta abar)



EKINTZAK	EGUTEGIA	EGIAZTATZEKO ITURRIAK
6 Kanpaina bat egitea, tratu txar eta/edo sexu erasoen biktimak diren emakumeei laguntzeko baliabideak, zerbitzuak eta programak zabaldu eta horien berri emateko.	Udalbatzarrak zerbitzu berriak onartu zain	Kanpaina bera
7 Emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako Nazioarteko Egunarekin lotutako kanpaina eta ekintzak.	2006ko urri-azaroa	Kanpaina bera
8 Emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako Nazioarteko Egunarekin lotutako kanpaina eta ekintzak.	2007ko urri-azaroa	Kanpaina bera
9 Gizonek osatutako kolektibo bat sortu eta eratu dadin bultzatzea, emakumeen aurkako indarkeriaren aurka borrokatzeko.	2006-2007ko ikasturtea	Bilera akta Memoria

5. Helburua

Hobetzea, batetik, emakume horiei laguntzen dieten profesionalen prestakuntza multidizplinarra (arloan polizial, judizial, osasun eta gizarte profesionalena), eta, bestetik, arazo sozial honetan interesa eta sentsibilizazioa duten herriko kolektibo guztiena.

	EKINTZAK	EGUTEGIA	EGIAZTATZEKO ITURRIAK
1	Osasun zentroetako eta gizarte zerbitzuetako profesionalentzako prestakuntza espezifikoa.	2006-2007ko ikasturtea	Dokumentazioa Ikastaroaren memoria Ikastaroaren ebaluazioa
2	Arrasateko Udaltzaingoarentzako prestakuntza espezifikoa.	2006ko proposamena. 007-2008ko ikasturtea	Dokumentazioa Ikastaroaren memoria Ikastaroaren ebaluazioa
3	Emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako Erakundeen Arteko Batzordearentzako prestakuntza espezifikoa.	2006-2008ko ikasturtea	Dokumentazioa Ikastaroaren memoria Ikastaroaren ebaluazioa
4	Arrasateko Udaleko ordezkariaren aurkako sindikalarentzako eta Enpresa Komitearentzako prestakuntza espezifikoa.	2006-2008ko ikasturtea	Dokumentazioa Ikastaroaren memoria Ikastaroaren ebaluazioa
5	Udalan ordezkariaren politikoa duten edo ez duten alderdi politikoetako ordezkariarentzako prestakuntza espezifikoa.	2007-2008ko ikasturtea	Dokumentazioa Ikastaroaren memoria Ikastaroaren ebaluazioa
6	Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Plataformarentzako eta gai honetan interesa duten beste kolektibo batzuentzako (Emakumeen Udal Kontseilua, Ekin-Emakumeak eta abar) prestakuntza espezifikoa.	2006-2008ko ikasturtea	Dokumentazioa Ikastaroaren memoria Ikastaroaren ebaluazioa
7	Herriko hedabideentzako prestakuntza espezifikoa.	2007-2008ko ikasturtea	Dokumentazioa Ikastaroaren memoria Ikastaroaren ebaluazioa

6. Helburua

Emakumeen aurkako tratu txarrak eta sexu erasoak antzeman eta prebenitzeko estrategia berriak indartu eta garatzea, erakundeetan eta gizartean.

	EKINTZAK	EGUTEGIA	EGIAZTATZEKO ITURRIAK
1	Adierazle multzo bat egitea, agerikoak ez diren tratu txarren egoerak identifikatzeko	2006ko urri-abendua	Dokumentua bera
2	Adierazle multzoaren berri zabaltzea, tratu txar eta sexu erasoen biktimei laguntzen dieten administrazio guztietan	2006ko urtarril-otsaila	Dokumentua bera Zabaltzeko materiala
3	Osasun eremuko profesionalekin bereziki lan egitea, tratu txarrak antzeman ditzaten eta gizarte zerbitzuari horien berri eman diezaieten	2006-2008ko ikasturtea	Bilerako akta eta akordioak Memoria
4	Lehen mailako osasun zentroetan beharrezko estrategien garapena bultzatzea eta sustatzea, emakumeen aurkako indarkeria antzeman eta prebenitzeko	2006-2008ko ikasturtea	Bilerako akta eta akordioak Memoria
5	Estrategia espezifikoak diseinatzea, egunero mendean hartuta egonik eta tratu txarrak jasota ere horren kontzientziarik ez duten emakumeentzat	2006-2008ko ikasturtea	Bilerako akta eta akordioak Memoria



EKINTZAK	EGUTEGIA	EGIAZTATZEKO ITURRIAK
6 Indarkeria gaiei buruzko prestakuntza eta prebentzio moduluak sar daitezen laguntzea, Emakume Txokoan eta HHIn	2006-2008ko ikasturtea	Dokumentazioa Ikastaroaren memoria Ikastaroaren ebaluazioa
7 Gaztegunek baliatzea (Gaztetxea, aisialdiko taldeak, HHI eta abar) tailerrak eta hitzaldiak proposatzeko, identitateen eraikuntza eta sozializazioaren inguruan eta indarkeriarekin duen loturaren inguruan sakontze aldera	2006-2008ko ikasturtea	Aktak Memoria Zabaltzeko materiala
8 Antzeman eta prebenitzeko lanean jarraitzea, Gizarte Zerbitzuekin eta Bergarako Ertzaintzaren komisariarekin elkarlanean	2006-2008ko ikasturtea	Bilerako akta eta akordioak

7. Helburua

Tratu txarren eta sexu erasoen biktimak diren emakumeei laguntzeko, herrian gaurko egunean dauden zerbitzuak, programak eta baliabideak hobetu eta egokitzea.

EKINTZAK	EGUTEGIA	EGIAZTATZEKO ITURRIAK
1 Tratu txarren eta/edo sexu erasoen biktimak diren emakumeei laguntza psikologikoa emateko programako saio terapeutikoak gehitzea. Udalaren urteroko aurrekontuetan erantsiko dira saio terapeutiko hauek gehitzeak sortutako gastuak	2006-2008ko ikastaroa	Bilerako akta eta akordioak
2 Emakumeei tratu txarrak ematen dizkieten pertsonentzako laguntza psikologikoaren zerbitzuen erabilera sustatzea	2006-2008ko ikastaroa	Zabaltzeko materiala Datuak erregistratzea
3 Gutxieneko diru sarrereren berme fondo bat edukitzea, tratu txarren eta/edo sexu erasoen biktimentzako diru baliabide normalizatuak lortu arte. Diru laguntza horiek itzuli beharrik ez da izango	2006-2008ko ikastaroa	Bilerako akta eta akordioak
4 Estrategia berriak garatzea, tratu txarrak sufritzeaz gain beste egoera edo arazo batzuk ere (desberdintasun funtzionala, immigrazio irregularra, toxikomaniak, alkoholismoa, buru osasuna eta abar) pairatzen dituzten emakumeen kasuak antzemateko	2006-2008ko ikastaroa	Bilera akta Zabaltzeko materiala Datuak erregistratzea



EKINTZAK	EGUTEGIA	EGIAZTATZEKO ITURRIAK
<p>5 Zerbitzuak eta programak egokitu eta hobetzea, emakume horiei (etorkinak, desberdintasun funtzionala, toxikomanoak, buru osasuna) erantzun espezializatua eta indibidualizatua emateko</p>	2006-2008ko ikasturtea	Bilera akta Zabaltzeko materiala Datuak erregistratzea
<p>6 Jarraipeneko eta laguntza psikosozialeko (Laguntza Taldeak) programak bultzatzea, laguntza psikologikoaren programako saio terapeutikoak bukatutakoan laguntza horrekin jarraitu nahi duten emakumeentzat</p>	2006-2008ko ikasturtea	Bilera akta Taldea bera Ebaluazioa Memoria
<p>7 Emakume Txokoaren programazio arruntean ikastaroak, tailerrak eta hitzaldiak sartzeari, laguntza estuagoa, informagoa eta zuzenagoa emateko, batez ere ahulagoa den kolektibo horrentzat</p>	2006-2008ko ikasturtea	Ikastaroaren proiektua Dokumentazioa Ikastaroaren memoria Ikastaroaren ebaluazioa
<p>8 Emakume horien autonomia berriro egituratzeko prozesua laguntzea. Laguntza indibidualizatua ematea. Aholkatu, kudeatu eta azkartzea, horretarako dauden baliabideak eta gizarte prestazioak jaso ditzaten (prestazio ekonomikoa, etxebizitza, lan prestakuntza eta laneratzea)</p>	2006-2008ko ikasturtea	Etxebizitza, enplegu prestakuntza eta prestazio ekonomikoak jasotzeko tramitazioaren urteko memoria
<p>9 Kupa sortzea edo erreserbak edo bestelako neurriak ezartzea, tratu txarren eta/edo sexu erasoen ondorioz etxetik alde egin behar izan duten emakumeentzat, diru publikoarekin finantzaturako etxeak eta hirigintza hitzarmenetatik sortutako sustapen publikorik gabeko etxeak emateko. (Zerrajera, Atxabalpe eta abar). Gizon-emakumeen Berdintasunerako Legea, 59. art.</p>	2006-2008ko ikasturtea	Etxe horien adjudikazioari buruzko txostena, eskabideak eta memoria.

8. Helburua

Zerbitzu, programa eta baliabide sozial berriak lehenbailehen sortzen laguntzea, tratu txarren eta/edo sexu erasoen biktimak diren emakumeentzako laguntza eta harrera hobetze aldera.

EKINTZAK	EGUTEGIA	EGIAZTATZEKO ITURRIAK
1 Aldi baterako Harrera Etxea, ondo hornitua eta tratu txarren eta/edo sexu erasoen biktimei lagun egiteko zerbitzuarekin	2006ko martxo-uztaila	Dokumentazioa Proiektuaren proposamena Onarpena Zerbitzuaren beraren kontratazioa
2 Arrasateko emakumeentzako Informazio eta Lege Aholkularitzako Zerbitzu doakoa sortzea	2006ko apiril-uztaila	Dokumentazioa Proiektuaren proposamena Onarpena Zerbitzuaren beraren kontratazioa
3 Larrialdietarako Harrera Etxea, Debagoieneko Mankomunitatean tratu txarren eta/edo sexu erasoen biktima diren emakumeentzat	Proposamena aztertu 2006-2007ko ikasturtean	Dokumentazioa Proiektuaren proposamena Onarpena Zerbitzuaren beraren kontratazioa
4 Familia Bitartekaritzako Zerbitzua. Topagunea.	Proposamena aztertu 2006-2007ko ikasturtean	Dokumentazioa Proiektuaren proposamena Onarpena Zerbitzuaren beraren kontratazioa

4.2.2 Hezkuntza arloan genero indarkeriari aurre egiteko udal ekimena 2006-2010

1. Helburua

Neska-mutilen arteko begirunezko harremanak sustatzea, genero indarkeriari aurre egiteko neurri moduan.

EKINTZAK	ARDURADUNAK	EPEAK	EBALUATZEKO IRIZPIDEAK
<p>1 Neska-mutilen harremanen ingurukoak lantzea lehen hezkuntzako ikastetxeetan Tailerra: Genero indarkeriaren jatorriaren eta ezaugarrien berri jakitea, hainbat esparrutako egoerei buruz gogoeta egiteko eta erantzun egokiak bilatzeko entrenamendu moduan</p>	Ikastetxeak Udal teknikariak	Urtean behin	Saioen kopurua Neska-mutilen kopuruak Ikasleen balorazioa Irakasleen balorazioa Gaiari buruzko interesa
<p>2 Neska-mutilen harremanen ingurukoak lantzea DBH ikastetxeetan Tailerra: Genero indarkeriaren jatorriaren eta ezaugarrien berri jakitea, hainbat esparrutako egoerei buruz gogoeta egiteko eta erantzun egokiak bilatzeko entrenamendu moduan</p>	Ikastetxeak Udal teknikariak	Urtean behin	Saioen kopurua Neska-mutilen kopuruak Ikasleen balorazioa Irakasleen balorazioa Gaiari buruzko interesa
<p>3 Gaia lantzea hezkidetzaren buletinetan</p>	Ikastetxeak eta buletin arduradunak	Urtean hirutan	Ikasleen balorazioa Irakasleen balorazioa Gurasoen balorazioa
<p>4 Autodefentsa ikastaroa DBHko neskenentzat (autoestimua eta autodefentsa lantzeko)</p>	Ikastetxeak Udal teknikariak	Urtean behin	Parte hartzaileen kopurua Parte hartzaileen erantzuna



	EKINTZAK	ARDURADUNAK	EPEAK	EBALUATZEKO IRIZPIDEAK
5	Indarkeria sexistaren prebentziorako tailer irekiak	Udal teknikariak	Urtean birritan	Parte hartzen duten neska-mutilen kopurua Parte hartzaileen erantzuna
6	Ikastetxe eta herriko jaietan umeez eta gazteek berdintasunean oinarritutako ekintzak egitea: jinkana ez-sexista	Ikastetxeak Udal teknikariak Jai batzordea	Jaietan	Ekintzen kopurua Parte hartzaileen kopurua Parte hartzen duten neska-mutilen kopuruak Elkarri adierazitako errespetua
7	Sexualitate informazio bulegoan bideo foruma prestatzea, sexu indarkeriaren eta harreman bortitzen inguruan	Sexu informaziorako bulegoko teknikariak	Urtean birritan	Parte hartzen duten neska-mutilen kopuruak Partaidetza
8	Antzerkia edo ipuin kontalaria, bi sexuen artean sortzen diren gatazka ohikoenak islatzeko eta gogoeta bultzatzeko	Udal teknikariak Antzerki taldeak Ipuin kontalariak	Urtean behin	Parte hartzen duten neska-mutilen kopuruak Ekintza partaideen beharretara moldatzeko gaitasuna

2. Helburua

Emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko sentsibilizazioa eta prestakuntza bultzatzea, hezkuntza formaleko zein ez-formaleko irakasleen artean

	EKINTZAK	ARDURADUNAK	EPEAK	EBALUATZEKO IRIZPIDEAK
1	Irakasleek hezkidetzaren inguruko prestakuntza jasotzea, genero indarkeriari aurrea hartzeko	Ikastetxeak Udal teknikariak	Urtean	Saioen kopurua Irakasleen balorazioa Gaiari buruzko interesa
2	Begiraleek hezkidetzaren inguruko prestakuntza jasotzea, genero indarkeriari aurrea hartzeko	Udal teknikariak Aisialdiko begiraleak	Urtean	Saioen kopurua Irakasleen balorazioa Gaiari buruzko interesa.
3	Irakasleentzako eta hezitzaileentzako hezkuntza materialak sortzea, emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzeko	Udal teknikariak	Urtero zerbait sortzea	Materialaren egokitasuna eta erabilgarritasuna
4	Irakasleentzako eta begiraleentzako tailerra emakumeen aurkako indarkeriari buruz Tailerra: Genero indarkeriaren jatorriaren eta ezaugarrien berri jakitea, hainbat esparrutako egoerei buruz gogoeta egiteko eta erantzun egokiak bilatzeko entrenamendu moduan	Udal teknikariak	Urtean	Saioen kopurua Irakasleen balorazioa Gaiari buruzko interesa.
5	Maskulinitatearen eta indarkeriaren erabileraren inguruko tailerra, irakasleentzat eta begiraleentzat	Udal teknikariak Maskulinitate gaian adituak	Urtean behin	Saioen kopurua Irakasleen balorazioa Gaiari buruzko interesa.

3. Helburua

Irakasleei eta begiraleei baliabideak ematea, indarkeria antzemateko eta erantzun egokiak eman ahal izateko.

EKINTZAK	ARDURADUNAK	EPEAK	EBALUATZEKO IRIZPIDEAK
1 Informazio saioak, emakumeen aurkako indarkeriak haurrengan izaten duen eraginari buruz	Udal teknikariak	Urtean behin	Parte hartzaileen kopurua Ebaluazioa Gaiari buruzko interesa
2 Harremanak erraztu eta komunikazio bideak zabaltzea udal teknikarien eta irakasleen artean Sarea antolatzea	Udal teknikariak Hezkuntza eragileek	Urtean	Bilera kopurua Sarea antolatzea Sarean parte hartzen dutenen kopurua Emakumeen eta gizonen kopurua Laguntza eta kolaborazioa
3 Zerbitzuen eta baliabideen berri ematea, eta egoera bortizetan zelan jokatu azalduko duen informazio gida sortzea eta zabaltzea	Udal teknikariak	Behin	Banatutako giden kopurua

4. Helburua

Gurasoek berdintasunezko harremanak bultzatzea neska-mutileen artean, indarkeria modu guztiak desagerrarazteko.


	EKINTZAK	ARDURADUNAK	EPEAK	EBALUATZEKO IRIZPIDEAK
1	Guraso eskoletan hezkidetzeta eta genero indarkeriari loturiko gaiak lantzea	Udal teknikariak	Urtero	Parte hartzea Parte hartzaileen ebaluazioa
2	Tailerrak, solasaldiak eta bideoforumak gurasoentzat, neska-mutikoen eta gizon-emakumeen arteko genero harreman bortitzei buruz	Udal teknikariak Ikastetxeak	Urtero	Parte hartzea Parte hartzaileen ebaluazioa

5. Helburua

Gogoeta bultzatzea, emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna bermatzen duten familia eredu berriei buruz.

EKINTZAK	ARDURADUNAK	EPEAK	EBALUATZEKO IRIZPIDEAK
1 Hitzaldiak, genero indarkeria haurrengan duen eraginari buruz	Udal teknikariak	Urtean behin	Parte hartzea Parte hartzaileen ebaluazioa
2 Tailerra etxeko gatazken konponbideari eta komunikazioari buruz	Udal teknikariak	Urtean behin	Parte hartzea Parte hartzaileen ebaluazioa
3 Informazio panelak, familia eredu berriei buruz	Udal teknikariak	Urtean behin	Parte hartzea Parte hartzaileen ebaluazioa
4 “Harremanak eta balioak etxeko esparrutik esparru publikora” gaiari buruzko hitzaldia	Udal teknikariak	Urtean behin	Parte hartzea Parte hartzaileen ebaluazioa
5 Maitasunari eta harremanei buruzko hitzaldia	Udal teknikariak	Urtean behin	Parte hartzea Parte hartzaileen ebaluazioa

Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko erakundeek emandako erantzuna: *Plano*



5

Aurrekontua

5. Aurrekontua

Emakumeen Aurkako Indarkeriaren kontrako I. Udal Plana abian jartzeko, beharrezkoa izango da konpromiso politikoa. Konpromiso horrek ekarri beharko lituzke, besteak beste, giza eta diru baliabide nahikoa jartzea, plana diseinatu, martxan jarri, jarraipena egin eta ebaluatzeko.


Beharrezkotzat jo diren baliabide ekonomikoak zehazturik ageri dira erantsitako dokumentuan. Hala, Udalaren aurrekontuetan, urtero jaso beharko dira, plana indarrean dagoen bitartean, kalkulu hauetatik ateratako diru partidak.

Giza baliabideei dagokienez, Gizarte Sustapeneko Emakumearen departamentuak uste du, plana martxan jartzeko eta emakumeen eta gizonen aukera berdintasunerako politikak garatzeko, beharrezkoa dela Emakume Txokoko Dinamizatzaile lanpostua finkatzea, Udaleko Lanpostuen Zerrendan lanaldi osoko lanpostua sortuz. Gizarte Sustapenak hala proposatuko dio Pertsonaleko departamentuari 2007ko Aurrekontua osatzeko fasean (2006ko iraila). (Azpimarratu beharra dago Esther Lizarraldekin — Emakume Txokoko Dinamizatzailea, aldi baterako eta lanaldi murriztuarekin — duen curriculum akademikoa eta Tokiko Jarduera Plana diseinatu, martxan jarri eta helburuak eta jarduerak ebaluatzeko egiten ari den lana.)

Zerbitzu berriak sortzeari dagokionez, azpimarratu beharra dago ezinbestekoa dela tratatu txarrak hartutako emakumeak **Berehala Hartzeko Zentroa** sortzea, Debagoieneko Mankomunitateak kudeaturik. Era berean, planean jasotzen da **Topagune** bat eta **Familia Bitartekaritzako** zerbitzua sortzea komeni den eta bidegarria den aztertzea. Planarekin bat etorrita, kontuan hartu behar da, azterketa egin ondoren aipatutako hiru zerbitzu berriak sortzea komeni dela ikusten bada, Udalak bere gain hartu beharko lukeela haiek martxan jartzea, beharrezko baliabide ekonomikoak jarritz, hau da, aurrekontuan sartuz horretarako behar dena.

KONTZEPTUAK	2006 APIRILA 2007 APIRILA	2007 APIRILA 2008 APIRILA	2009	2010	GUZTIRA
Prestakuntza	8.000€	12.000€	—	—	20.000€
Informazioa. Zabalkuntza kanpainak. Gida, dekalogoa	10.000€	10.000€	—	—	20.000€
Maskulinitate eskola	3.000€	9.000€	—	—	12.000€
Emakume Txokoko jarduerak	3.000€	3.000€	—	—	6.000€
Programa psikologikoa-laguntza taldeak	8.000€	8.000€	—	—	16.000€
Aldi baterako harrera etxea (errenta, mantenua eta mantentzea)	14.400€	14.896€	—	—	29.296€
Lagun egiteko zerbitzua	9.000€	9.000€	—	—	18.000€
Gutxieneko diru sarrerak bermatzeko fondoa	9.000€	9.000€	—	—	18.000€
Lege informazio eta aholkularitzako zerbitzua	9.000€	9.000€	—	—	18.000€
Heziketa plana	10.218€	10.218€	10.218€	10.218€	40.872€
Besterik	7000€	3000€	—	—	10.000€
Guztira	90.618€	97.114€	10.218€	10.218€	208.168€

Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko
erakundeek emandako erantzuna: *Plano*



6

Protokoloa

6. Protokoloa

Telefonoak

Arrasateko udala

Gizarte zerbitzuak
943 79 09 00

Emakume zerbitzua
943 79 41 39

Udaltzaingoa
943 79 14 39
629 733 873

Arrasatetik kampo

Ertzaintza-Bergara
943 53 47 20

Gizarte-larrialdietako Foru Zerbitzua
943 22 44 11


Eusko Jaurlaritza
900 840 111

Biktimari laguntzeko zerbitzua (BLZ)


Araban: 945 00 48 95
Bizkaian: 900 40 00 28
Gipuzkoan: 900 10 09 28
112



BERGARAKO EPAITEGIA




BESTE PROGRAMA ETA ZERBITZU BATZUEI BURUZKO INFORMAZIOA * AHOZKO ETA IDATZIZKO INFORMAZIOA






ARRASATEKO ESKUALDE OSPITALEA




BESTE PROGRAMA ETA ZERBITZU BATZUEI BURUZKO INFORMAZIOA * AHOZKO ETA IDATZIZKO INFORMAZIOA






BERGARAKO ERTZAINZAREN KOMISARIA




BESTE PROGRAMA ETA ZERBITZU BATZUEI BURUZKO INFORMAZIOA * AHOZKO ETA IDATZIZKO INFORMAZIOA






ARRASATEKO UDALTZAINGOA




BESTE PROGRAMA ETA ZERBITZU BATZUEI BURUZKO INFORMAZIOA * AHOZKO ETA IDATZIZKO INFORMAZIOA





ARRASATEKO ANBULATORIOA





ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN
DEPARTAMENTO DE LA MUJER